

Ayuso koronelarentzat behin-behineko askatasuna agindu du Garzon epaileak


Rafael Garabito Zerbitzu Fiskaleko azken burua kargurik gabe libre dago

Arsenio Ayuso Goardia Zibileko koronela aske utzi zuen atzo Baltasar Garzon epaileak, Entzutegi Nazionalan deklaratu ondoren. 1990. urtera arte Zerbitzu Fiskaleko buru izan zena «salatariei ustez drogarekin ordaintzarekin» zerikusia izateagatik inplikaturik dago. Ayusoren ardura hartu zuen Rafael Garabito koronela, ordea, libre geratu da aurkako kargurik gabe.

MADRIL

Baltasar Garzonen aurrean deklaratu zuen lehena Rafael Garabito koronela izan zen. Orain gutxi arte Zerbitzu Fiskaleko buru zenak 'Venezuela operazioan' posta zakurik zabaldu eta bertatik eskutitik hartu zenik ez zekiela aitortu zion epaileari eta operazio horretako arduradunak UCIFA-ko buru zen Francisco Quintero teniente-koronela eta bere menpeko Jose Ramon Pindado zirela.

Garabito ordubetik deklaratu zuen Entzutegi Nazionalan eta ondoren libre utzi zuen Garzonek kargurik gabe. Gogoratu behar da Zerbitzu Fiskaleko buruaren menpe zegoen UCIFA goardia zibil taldea ustez salatariei drogarekin ordaintzeagatik ikertzen



Ayuso koronelak bigarren egunez deklaratu zuen atzo.

EFE

ari direla. Hori dela eta, Luis Roldan Goardia Zibilaren zuzendariak Garabito arduratik kendu zuen.

«OROIMEN TXARREKO GIZONA» Ondoren Arsenio Ayusok deklaratu zuen eta 'Dalton anaiak' goitizenez ezagutzen diren Goardia Zibilaren salatariek ezagutzen zituenik ukatu egin zuen. Jose Emilio Rodriguez Menendez espetxeratuak goardia zibil baten abokatuak esan zuenez, «Quintero teniente koronelari leporatu» zion ardura

guztia eta «oroimen txarreko gizona» zela esan zuen. Abokatu honen ustez, Ayusoren aitortpena oso abstraktua izan zen epaileak egindako galderak saihesten aritu baitzen.

Herenegun Garzonen aurrean deklaratu bezala, atzo ere ukatu egin zuen salatariei drogarekin ordaintzen zitzaizaien edota UCIFAko goardia zibile horrela egiteko agindua eman zienik. Francisco Escobar koronel honen abokatuarentzat ez zegoen espetxeratzeko arrazoirik eta akusazio zehatzak ez zeudenez, Gar-

zon epaileak behin-behineko askatasuna agindu zuen baina kontrol judiziala ezarri zion. Hori dela eta, hilero bitan epailearen aurrean agertu beharko du.

Bestalde, atzo jakin ahal izan zenez, 'Cochabamba operazioa' egin zenean droga trafikatzeko buruak deklaratu du gaur Entzutegi Nazionalan. Operazio honetan 600 gramo heroina zituela atzeman zuten emakumea libre utzi zuten. Gaurko deklarapenekin Goardia Zibilaren buruek emakume hau zergatik utzi zuten libre argitu nahi du epaileak.

PSOEk «jarrera engainagarria» izan duela dio Barbero epaileak

MADRIL


Marino Barbero Filesa kasuko epaileak «jarrera engainagarria» izatea eta bere ikerketak oztopatzea leporatu dizkie PSOEko arduradunei Auzitegi Goreneko Penaleko Gelara bidalitako txostenean. Idazkian Barberok ohartarazi nahi du alderdi sozialista, ez baduela bere jardura al-

datzen, oztopo horiek ezabatzeko neurriak, ondorio legalak barne, hartu beharko dituela.

Barberok aipatutako txostena bidali behar izan du, Carlos Navarro eta Jose Maria Sala PSOEko buruzagiek eta Alberto Flores eta Luis Olivero Malesa enpresaren jabeek berak kaleratutako auto bati errekurtsioa jarri eta gero. Filesa kasuan egindako ikerketak indarririk gabe uzteko PSOEko kideek egindako eskaerari ezetza eman zion Barbero epaileak auto horretan.

Barberoren ustez, PSOEko diru kontuei buruzko datuak eskatu zituen arduradun sozialistek «jarrera engainagarria eta oztopatzailea» azaldu zuten. Oraingoz, bere «zuhertasun eta moderazioari esker» oztopoak ezabatzeko neurriak ez duela hartu dio epaileak, «baina ez badu jarrera hori aldatzen neurriak hartu beharko dituzte».

Epailearen inpartzialtasuna zalantzan jarri zuen Carlos Navarroi akusazio hori «ez errepikatze» gomendioa egin dio Bar-



Barbero epailea ez da PSOEko arduradunetz fidatzen.

EFE

berok, «epaile bati partzialtasuna leporatzeak balorazio larria merezi du eta bide legalak erabili beharko lirarteke».

Joan den azaroaren 18an Filesa kasuko epaileak PSOEren egoitzan sartzeko eta miatzeko agindua eman zuen «sozialistek ukatzen baizuten alderdiak bazuela diru kontuen liburua eta esaten zuten dokumentazioa Kontu Auzitegira bidalita zutela». Hori frogatzeko berak eskatu

ez zuen dokumentazioa aurkeztu zutela azaltzen du Barberok Auzitegi Gorenera bidalitako txostenean.

Eskatutako dokumentazioa ematea atzeratzean PSOEk «zenbait dokumentazio, ikerketarako ezinbestekoa, ezkutatu» nahi zuela uste du epaileak, «horrek duen larritasunarekin». Hori dela eta, egoitzaren bigarren miaketa agindu zuen abenduaren hemezortzian.

LABURREAN

ESPAINIako untzi bat atzeman dute Frantzian

Frantziako ur atlantikoan eremu ekonomikoan arrantza egiteko lizentziarik ez zeukan 'Losada' untzi espainiarra atzeman zuen astelehen gauean Baionako kostaldean Frantziako Itsas Armadak. Bertako agintariek adierazi zuten, lizentziarik gabe eta legez kanpoko sareekin arrantza egiteagatik geldiarazi zuten ●

FURGOI blindatu bat atrakatu dute Altean

Prosesa enpresaren furgoi blindatu batetik 20 milioi pezeta (milioi bat libera) lapurtu zituzten atzo ustez italiarrak diren ezezagun batzuek, Alteako (Alacant) peajea. Atrakatzaileek peajeko irteeran bi autotan sartuta itxaron zuten furgoneta iritsi arte. Orduan, autoetatik atera eta fusil batekin furgoi tirokatu zuten. Hiru langileak atzeman ondoren, dirua hartu eta ihes egin zuten ●

FLNCK 50 atentatu bere gain hartu ditu

Joan den astelehen goizaldean Kortsikako Aiacciu hiriburuan egindako 50 atentatu bere gain hartu ditu Kortsikako Nazio Askapen Fronteko (FLNC) adar historikoak. Atentatu gehienak Frantzia eta atzerriko herritarrek irland dituzten ondasun mugiezinen kontra izan ziren «lurraren espekulazioa salatzeko», FLNCK azaldu duenez. Bere ustez, kanpotarrek bultzatzen duten garapena «ez dator bat kortsikarren interesekin» ●

ISTILURIK ez Renfeko bigarren greba egunean

CCOO sindikatuak Renfe enpresan deitutako etenaldi partzialeko bigarren egunean ez zen istilurik izan eta atzerapen bakarrak, baina txikiak, ibilbide luzeko trenetan izan ziren. Hala ere, grebaren eraginaz datu ezberdinak zabaldu zituzten Renfek eta CCOOK. Renferen arabera, langileen % 8k soilik jarraitu zuten deialdia baina CCOOK % 90 aipatu zuen ●



HERNANIKO UDALA

IRAGARKIA

Hernaniko Udal Pleno Bazarrean 1992ko Abenduak 3an ospatu bilkuran hastapenez onartzea erabaki zuen "SUE-A1 (Akarregi) Sektoreko hirigintz proiektua", expedientea herriari jakitera emateko 15 eguneko epean zehar bideratuz.

Hernani, 1993ko urtarrilak 20
ALKATEA